ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko urtarrilaren 21a, astelehena • 9 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## KANPEZUKO UDALA

**Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari**

Udalbatzak, 2018ko azaroaren 13ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari. Aldaketa horri behin-behineko onespena ematen zion erabakia jendaurrean egon zen bitartean, haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara aldaketen testuak:

"6.6. Musika eskola.

1. Xedea.

Tasa honen xedea da Kanpezuko Udalak programatutako musika eskoletan parte hartzea.

2. Tarifak.

Kuota, bi pertsonentzako taldeentzat: 60 euro hilean.

Kuota, 3 lagun edo gehiagoko taldeentzat: 38 euro hilean."

Santikurutze Kanpezu, 2019ko urtarrilaren 10a

*Alkatea*
*IBERNALO BASTERRA TXASKO*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma:  2019.01.21 06:42:18 Z